

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Administrazio Kontseiluaren buruaren 196/2023 Ebazpena, urriaren 16koa, zeinaren bidez onartzen baita Gazteriaren Foru Erakundearen (Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa) zerbitzurako lan-kontratudun langileak kontratatzeko hautaketa-prozesuaren deialdian mantnimenduko ofiziala lanposturako hautatutako pertsonen kontratazioa. Hautaketa-prozesu hori Gazteriaren Foru Erakundearen 792/2019 eta 171/2022 erabakietan aurreikusita dago, eta erabaki horien bidez onartzen dira aipatutako urteetarako lan-eskaintza publikoak

138/2022 Ebazpena, ekainaren 16ko Administrazio Kontseiluaren ebazpenaren bitartez onartu ziren Gazteriaren Foru Erakundearen 2022ko hautapen prozesuak arautzen duten oinarri orokorrak.

2023ko ekainaren 14an, onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzen da dagokien lantoki zehatza adieraziz, eta erreklamazioak aurkezteko hamar egun balioduneko epea ezarri.

Irailaren 25eko 172/2023 Ebazpenaren bidez, mantnimenduko ofizialaren lanposturako hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu zen, honako lanpostu hauei atxikita:

IZENA	LANPOSTUA	ATERPETXEA	KODEA
ARRIETA VAZQUEZ, ALEXANDER	Mantnimenduko ofiziala	30.4000 Zuhatzako aterpetxea	090335
ESCOBAR MORENTIN, ASIER		30.2000 Espejoko Aterpetxea	090226

Oinarri arautzaileen 8. apartatuarekin bat etorritz, pertsona hauek aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu dituzte ezarritako epearen barruan, eta agiri horiek aztertuta, ondorioztatzen da izangaiak eskatutako betekizunak betetzen dituztela; horrenbestez, egokia da pertsona hauek langile lan kontratudun gisa kontratatzea, lanpostuen zerrendan lanposturako ezarritako baldintzekin bat etorritz.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, funtzio publikoan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailarekin elkarlanean, Erakunde Autonomoko funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuen deialdia eta oinarriak onartzea; bere ardura izango da, baita ere, prozedura horiek ebaztea.

Horregatik guztiagatik, ebazpen hau ematen da

EBAZPENA

Lehenegoa. Gazteriaren Foru Erakundearen 2022ko hautaketa-proben deialdiari dagokion mantnimenduko ofizialaren lanpostuan sartzeko deialdian, jarraian adierazten diren lanpostura atxikita dagoen izangaiak kontratatzea onartzea:

LANPOSTUA	LANPOSTUA	ATERPETXEA	KONTRATAZIO ERREGIMENA	IZEN-ABIZENAK	NAN
090335	Mantnimenduko ofiziala	30.4000 Zuhatzako aterpetxea	Lan-kontratu aldiakako finkoa	Arrieta Vázquez, Alexander	4#.###.#04V
090226		30.2000 Espejoko Aterpetxea	Lan-kontratu finkoa	Escobar Morentin, Asier	7#.###.#98V

Bigarrena. Izendatutako izangaiek hilabeteko epea dute lanpostuaz jabetzeko, izendapena komunikatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe hori hamabost egun luza daiteke, izangaia hala eskatzen badu, eta horretarako bidezko arrazoirik izanez gero.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezarritako epealdiaren barruan lanpostuez jabetzen ez badira, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioa izateko eskubideak, deialdiaren ondoriozkoak, galduko dituzte.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean. Hain zuzen, hala egin ahal izango da bat etorritik uztailearen 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1 artikuluekin eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 123. artikuluekin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 16a

Kultura eta Kirol diputatua
ANA MARIA DEL VAL SANCHO